


Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Eta artoa lehertu egin zen

NEW MEXICO (AEB), 1948. Bat Cave-n (saguzarren koba) egindako indusketetan gizakiek erabilitako arto aleen arrastorik zaharrenak topatu zituzten. Gutxienez 4.000 urte zituztela esan zuen karbonoak. Mexikon K.a. 300. urteko errauts-kutxatila aurkitu zuten. Kutxak artoaren jainkoaren irudia zuen eta jainkoak lehertutako arto aleak, hau da, krispetak zituen ilean, apaingarri. Garai bertsukoak dira Ameriketako hainbat tokitan topatutako buztinezko ontziak; adituen esanetan, kultura aurreinkakoek arto aleak lehertzeko erabiltzen zituzten, horretarako harea beroa baliatuz. Beraz, artoari gizakiak eman zion lehen erabilera krispetak izan ziren. Artoa leherrarazten zuten, gero jateko edo apaingarri gisa erabiltzeko. Arto lehertuaz zopa eta garagardoa ere egiten zituzten.

Kolonizatzaileak iristerako, krispetak Amerika osoan kontsumitzen zituzten. Hernan Cortes Mexikora iritsi zenean, 1519an, aztekek zatilikagai garrantzitsua ziren krispetak, eta ilea apaintzeko eta lepokoak egiteko ere erabiltzen zituzten. Cobo espainiarrak zera idatzi zuen Peruko indiarrei buruz 1650ean: "Arto mota jakin bat xigortzen dute, lehertu arte". 1612an, lehen esploratzaile frantziarrak iparralderantz jo eta Aintzira Handien eskualdera iritsi zirenean, irokiarrek ere arto aleak leherrarazten zituztela ikusi zuten. Krispeta zopa dieta irokiarren oinarrietako bat zen. Plymouth-en (Massachusetts) kolono ingelesen ospatutako lehen Esker On Egunean, Kuadekina izeneko indiarrek krispetak eraman zituen operari. Berehala, krispetak azukrearekin edo esnegainarekin gosaltzeko ohitura zabaldu zen kolonoen artean.



Europarrak Amerikara iristerako kontinente guztian krispetak jaten zituzten.

Eskubiko irudian, XX. mende hasierako krispeta-makina.

Krispetak egiteko lehen makina Charlie Creators-ek asmatu zuen, 1885ean. Baina krispeten benetako loraldia, paradoxikoki, beste guztiak behea jo zuenean izan zen. 1929ko Depresio Handian, krispeta poltsak 5 eta 10 zentimotan saltzen ziren, eta krisialdiko luxu bakarrenetakoa bilakatu ziren. Ordurako, krispetak zine aretoekin eta antzokiekin lotuta zeuden. Eta horregatik krispeten beherakada telebistak ekarri zuen, 1950eko hamarkadan. Gero eta jende gutxiago joaten zen zinemara, etxetik irten gabe, tramankulu berri hark nahiko entretenitzen zuelako nonbait eta, beraz, gero eta krispeta gutxiago jaten ziren. Ikusleak zine aretoetara joaten ez baziren, orduan krispetak etxera hurbildu beharko zituzten. Urte batzuk lehenago, 1945ean, Percy Spencer-ek mikrouhinen eraginpean ipini zituen arto aleak. Spencerrek ez zekien gaur hain arrunta iruditzen zaiguna, arto aleak lehertu egingo zirela. Esperimentua funtsezkoa izan zen mikrouhin-labea asmatzeko. Puntako teknologia, amerikarrek duela 4.000 urte egiten zuten gauza bera egiteko. ■

ARRASTOAK



Copper ibaia.

MARY SMITH JONES joan den hilean zendu zen 89 urte zituela, eta haren hizkuntza ere hil zen berarekin batera. Alaskako eyak tribuko burua zen, baita inguru haietako zur-industria erraldoien aurkako borrokaren bultzatzaile nagusia ere. Copper ibaia- inguruetan bizi zen tribu honek genozidioa jasan zuen urtetan, eta dozena batzuk baino ez ziren geratu XX. mendean.

Copper ibaiko haur indigenak, 1903ko argazkian.



Eyak na-dené taldeko hizkuntza zen, Asiatik Amerikarako migrazioak baino lehen data-tua eta, beraz, 8.000 urtetik gorakoa.